

AITZINA

Editorea: Fermin Munarriz. Koordinatzailea: Mariasun Monzó. Aholkularia: Iñaki Egaña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal.
Helbidea: Rincón de la Aduana, 18 beheka. 31001 Iruña. Tfnoa. 948-21 99 99. Faxa: 948 212329. E-mail: aitzina@nafakobi.net

NORANTZA

AGURTZANE ELEJARZA

Bizkaiko URXINTXA Eskolako kidea

«Astialdirako hiztegi nazionala osatzeko asmoa dugu»

Urxintxa Astialdi Eskolak, Euskalerriko Eskautak eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak «Astialdirako Hiztegia» kaleratu berri dute. Beronen helburua astialdian erabiltzen diren terminoak bateratzea izan da.

AMAIA MUNDINANO

Astialdian lanean aritzen diren begirale eta kideek hainbat ekinza antolatzeke oinarri gaztelaniazko materiala erabiltzen dutela ohartu eta, arlo honetan euskararen erabilpena bultzatzea ezinbesteko helburutzat hartuz, astialdirako hiztegia osatzea erabaki dute.

Zeintzuk dira hiztegiak biltzen dituen edukiak?

Hiztegiak astialdian gabiltzan artean eguneroko dinamikan gehien erabiltzen ditugun hitzak edo terminoak biltzen ditu. Elkarlanean aritu garen taldeek, bakoitzak bere arloan, erabiltzen ditugun hitzak bildu, arlo honetan aritzen diren gainontzeko taldeen ekarpenak hartu eta astialdirako hiztegi bat osatzea lortu dugu, euskarazko zein gaztelaniazko hitzen bilduma. Euskarari dagokionez, berriz, terminoak bateratzea zen gure asmoa. Izan ere, gauza bera esateko termino ezberdinak erabiltzen genituen eta gauza ezberdinak esateko termino bera. Horretaz gain, erabiltzen diren hitzak zuzenak direla ziurtatzea zen gure helburua.

Zerk bultzatu zintuzten halako hiztegi bat sortzera?

Egunero lanean aritzen garenean, terminologiari dagokionez, eta euskararen kasuan batez ere, hutsuneak sumatzen ditugu. Astialdiaren elementurik

garrantzitsuena hezkuntza da, balore batuetan oinarritzen den hezkuntza, alegia: elkartasuna, ingurugiroarekiko errespetua... Zentzu horretan, astialdia aitzindaria izan dela pentsatzen dugu. Izan ere, egun eskoletan lantzen diren hainbat balore astialdi guretan aspaldian lantzen dira. Bestalde, euskarak hezkuntza balore horietan ere bere eginkizuna duela uste dugu. Astialdian jolas ekinza nagusienakoa dela kontuan hartuz -jolasaren bitartez haurra garatzen da, sentimenduak adierazten ditu, inguruko haurrekin harreman mantentzen ditu, baita helduekin ere...-, beraz euskararen transmisiora

ko tresna garrantzitsu bat dela pentsatzen dugu.

Zein da astialdi taldeetara hurbiltzen diren haurren eta gazteen hizkuntza oinarria?

Gaur egun, haur gehienek D ereduak ikasten dute. Beraz, taldeetan dauden ume gehienek oinarri euskara ezagutzen dute. Begiraleak ere D ereduak ikasitakoak dira gehienak. Beraz, euskarara da oinarria orokorrean. Hortaz, aurreapausoak egin behar genituela pentsatu genuen. Izan ere, euskaraz ezagutzea gauza bat da eta erabiltzea beste bat. Hori dela eta, eta Bai Euskarari akordioaren inguruan dagoen plangintza eta konpromisoaren baitan, euskararen erabilpen hori bultzatzea helburu, hiztegi hau, tresna gisa, astialdian aritzen direnei eskaintzea da gure asmoa. 1.200 ale kaleratu ditugu eta astialdiko talde guztiak bidaiako zae.

Hasierako asmoa astialdirako hiztegi nazionala osatzea zen. Erroka horrekin jarraituko duzue?

Horixe zen gure asmoa, baina arazo batzuk izan ditugu eta ezin izan dugu erroka hori gauzatu. Izan ere, astialdiari dagokionez, Iparaldean bizi duten errealitatea ez dugu oso ondo ezagutzen eta hainbat talderekin izandako harremanek ez dute hiztegi nazionala osatzeko aukerarik eman. Bestalde, hiztegi hau, kaleratu badugu ere, ez dugu lan amaitutzat jo eta, hori dela eta, euskarazko, gaztelaniazko eta frantsesezko terminoak bilduko dituen astialdirako hiztegi nazionala osatzeko errokkak hor jarraitzen du.



Monika del Valle

Zirtoka



Txillardegui

Udalbiltzari bai

Hasiak dira zurrumurruak. Enkas, bada-etzpada ere, errolda «prestatzen» hasi bide direla espagnolistak: Euskal Herrian bizi ez diren boto-emale asko «garaiz» guran zerrendatzen, eta abar.

Azpikeria hauen salaketa zehatza Udalbiltzari dagokio. Beste egingizun asko eta asko bezala. Hots, bai lan horrek, bai beste milak, elkartana eskatzen dute. Presekiago: gu abertzaleen arteko elkarlana. Udaltzen, normala denez, kolore askotako alkateak eta udaltaldek, mita (eta izango ditugu). Omenean, mota honetako edo hartako erroldaek. Abertzaleen arteko giroa hondatzeak ez du Udalbiltzaren egingizuna erazten.

Gure arteko herrak eta sumindurak etsaiak indartzea, ulergarria da: «divide ut vinces». Gure arteko herrak eta sumindurak geronek azkartzea eta bultzatzea, berriz, eta barka, ez du nik ulertzen.

Udalbiltzaren lan politikoa zailtzen dena baztertu behar da. Eta ez azkartu eta sendotu. Gure errakuntzak ahazteko garaia dugu orain; ez zaurietan ospina botatzeko.

Peto-Grullo hark dixit.

Zeren truke abertzaleen arteko giroa gaur, espainiar naziokierak bere gailurra jotzen duen une honetan, geronek areago posituko? Galdera honek erantzun garbiak behar ditu. Gaur eta hemen, Lizarr-Garazi baino hoberik proposatuko ez deno, Lizarra-Garazi-i bai. Aski eta sobera izan da aste hauetan jasan dugun lardasketa hita. Eta, beraz, eta ildo beretik: aurrera Udalbiltza, eta aurrera Udalbiltzaren egingizuna eraztuko dutenak oro.

Alderantziz: aitzekiak aitzekia, Udalbiltzaren egingizuna zapuztuko dituen guztiari, utikan.

AITZINDARIAK

ZARLES LAVIGERIE
1 8 2 5 1 8 9 2



Pariseko Saint Sulpice · 1888

«BADAKIZUE GIRIXTINO MAITEAK,
ZENBAT ESKLABU SALTZEN
DIREN URTEORO AFRIKAN
BARRENA?» ...

«... NIK ERRANEN DAUTZUET:
BORTZEHUN MILA JENDE!»

«... BERROGOI ETA HAMAR
EMAZTEKIREN ARDIESTEKO,
HAMAR ALDIRI DITUZTE
ERRAUSTEN HARRAPARIEK»

«... ETA GATIBU BAKOTXARENTZAT,
HAMAR HIL, IHIZIAN BEREAN
EDO KARABANA LUZEAN, GOSEAK,
GAIKAZ, SOFRIKARIOAK KALITURIK»

KARDINALAREN MINIZOAK INARROSI EGITEN
DITU GOGO LOKUMATUAK. ETA EZ SOILIK EURO-
PAN: SOCIETE ANTIESCLAVISTE FUNDATU DU
ALGERIAN BAIONES HUNEK, ETA OSPITALEAK
ETA UMEZURZTEGIAK ERABIKI DIZKIZU.
AFRIKA ZABALEAN. -METROPOLI KOLONIALE-
REN laguntza ZIPITZEK Gabe.